

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Interprete Gazteen IV zikloaren baitan, seigarren eta azken kontzertua ostegun honetan

*Emanaldia Fernando Remacha Auditorioan izango da 19:00etan eta sarrera doakoa da*

Asteazkena, 2019.eko martxoak 13

Fernando Remacha Auditorioak ostegun honetan bonbardino, perkusio eta biola kontzertua eskainiko du Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako 4. mailako ikasleen eskutik. Interprete Gazteen IV zikloko seigarren eta azken kontzertua 19:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da aretoa bete bitartean.

Ostegun honetako protagonistak Daniela

Sagastibelza bonbardino-jotzailea, Iker Idoate perkusio-jotzailea eta Cynthia Nieves biolista izanen dira. Musikari Gazteen IV zikloko azken kontzertuan honako obrak eskainiko dituzte: Béla Bartok sortzaile hungariarrak biolarako sortutako Kontzertuaren pasarteak; Max Reger alemaniarrek biolarako sortutako Suite 1.goa; Philip Sparke ingelesak bonbardino eta bandarako sortutako "Pantomine", bonbardino eta pianora moldatutako bertsoan; Christopher Wiggins ingelesak bonbardinorako sortutako "Soliloquy IX" pieza eta Alberto Bernal espainiarraren, "Impossible translations #3b" obra.

Interprete Gazteen Zikloaren IV edizio honetan espezialitate klasikoetako 4. mailako ikasleek hartzen dute parte; bonbardinoa, kantua, klarineta, txirula, gitarra, perkusioa, pianoa, saxofoia, tronpa, tronpeta, txistua, biolina eta biola ikasten duten ikasleek. Emalandietan ikasleek Miguel Ángel Aguirre, Leyre Lisarri, Michel Reynoo eta César Vallejo pianisten laguntza izango dute.



Ezker eskuin: Cynthia Nieves (biola), Daniela Sagastibelza (bonbardino) e Iker Idoate (perkusión).